

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko behar ditugun bazkideak eta hornitzaileak guri laguntzeko prest daudenak izango dira kasu honetan. Enpresa horrek guri laguntzeko prest egon arren, kalitate handiko produktuak eskaintzen dizkigutela ziurtatu behar dugu, eta, horregatik, haien zerbitzua eraginkorra izango da.



- Alde batetik, **komertzio txikiekin aliantza** bat sortu dugu, elkarrekin lan egiteko eta beraien egoera ekonomikoa aurrera ateratzeko.
  - ★ Hau da, hobeto ulertzeko, komertzio txikia esaterakoan, denda txikietara zuzentzen gara, langile autonomoak dauden dendetara.
- Gure **hornitzaileak**, musukoak botatzeko zakarrontzia egingo digutenak izango dira kasu honetan, enpresa teknologiko bat.
- Bestalde, hobeto antolatuta eta eraginkorrago egoteko langile batzuk kontratatuko ditugu, musukoak jaso eta horiek birziklatzen dituen enpresari helarazteko.
- Enpresa honek protokolo bat jarraituko beharko du musukoak hartzerako orduan, COVID-19a duen pertsona batek bota izan ahal baitu haren musukoa gure zakarrontzira.



Zakarrontziak bere berezitasunak ditu, hau da, musukoak bertan sartzeko, plastiko-poltsak eskainiko du gure zakarrontzi makinak.

- ★ Baita ere, txartela ateratzeko beharrezkoa denez, modu teknologiko batean egin behar da.
  - Hori dela eta, gure hornitzailea, **enpresa teknologiko** bat izango da, gure zakarrontzi makina egiteko eta diseinatzeko.

Birziklatzen diren musukoak, astean behin hustuko dira, eta hori, enpresaren garraiolari batzuek egingo dute, ondoren enpresetako fabriketara eramateko, eta bertan musukoekin lanean jartzeko. Elkarteak sortu dugunok, geuk, eskainiko eta kargatuko dugu makina astero gel desinfektatzaile batekin eta plastiko-poltsekin, hilaren amaieran bildutako diruaren bidez. Plastikozko poltsak eta gel-a garrantzitsua dela.



GEL DESINFEKTANTEA



MUSUKOAK GORDETZEKO